

AGUSTINA EDO MANOLETE

JONE IDIAZABAL

GAUR egun kirola egiteko aukera ugari dago. Azken urteotan kirol motak ugaritzeaz gain, gaurko gizartearen pentsaera edo kontzientzia dexente aldatu da gai honi dagokionez.

Gaurko gizarteak baditu kirola egiteko arrazoiak eta arrazoi hauek geroz eta errotuagoak daudela esan daiteke.

Bat, bizimodu osasuntsua egitea litzateke. Bestea, gizartearen modei jarraikiz, gorputz lirain eta ederra izateko grina.

Ondoren kontatuko dizuedan istorioa emakume kirolzale batena da baina bera hasi zen garaian, aipatu ditugun arrazoi horiek ez zeuden indarrean. Gizartearen pentsaera ere erabat bestelakoa zen.

1941.eko Otsailak 16-an jokatzen zen lehen aldiz Agustina Otaola Zapiain pelotan. 15 urte besterik ez zituen eta garai hartan dirua irabaztea zen gehienen helburu nagusia. Bere izebengandik zetorkion pelotan jolasteko zaletasuna eta lotura hau izan ez bazuen, gerora, beharbada, bere afizio handiena izango zuen lanbidetzat: arrantzuko patroï izatea alegia.

Agustinak bazituen izeba pelotariak. Hauen artean bat oso famatua, Josefina I. Hauen desioa ilobaren bat pelotari izatea zen. Agustinaren etxean 5 ahizpa eta 2 anai ziren eta hauetatik 3 neska pelotan hasi arren Agustinak bakarrik jarraitu zion bide horri: eta ondo jarraitu ere, pelota bihurtu bait zuen bere ogibide.

Gaztea zelarik Agustinak euskal-dantzak dantzatzen zituen batzokian Pujana jauna maixu zutelarik. Baina bapatean pelotan jolasten hasi zenean, kirol honi afizioa hartu eta udaran batzokian bertan entrenatzen hasi zen. Agustina ez zen nolanhiko pelotaria eta urte hartako Urrian bertan Madrident jokatzeo aukera eskeini zioten. Hemen hasi zen pelota bere etorkizun bezala.

Emakumeak pelotan lehenengo aldiz mende honen hasieran hasi ziren. Lehena Agustinaren izeba izan zen. Emakumeak raketaz jokatzen ziren pelotan. Raketa hauek teniseko antzekoak ziren baina pisu gehiago eta lokarri gogorragoak zituzten.

Beheko kalean lehen aldiz argia ikusi zuen emakume honek, garai hartako haur gehienek bezala Dña. Rosa-rekin ikasi zuen. Eskolako beste irakasle batek, M.^a Ignaziak, Agustinaren amari bere alaba ikasketekin jarraitzeko gai zela esan zion. Amari ordean nahikoa izan zitzaion bere alabaren gaitasun honen berri jakitea, ez bait zion bestelako ikasketarik eman.

Hala ere, Agustina Madrida joan zenean, bere izebekin bi-zi zen eta hauen asmoa ikasketak batzuk ematea zen. Asmoak asmo, gerran espetxeratutako osaba bati janaria eman behar zitzaioela eta Agustinak eskola alde batera utzi eta osabaren sabelaren premiak betetzera joaten zen.

Gertatuak gertatu, Agus-ek Madrid-en bizitako garaia oroitzen onak ditu.

Lehen aipatu bezala Agustina Madrida pelotan jokatzen joan zen eta berarekin batera baziren neska gehiago ere. Ez ziren lankide soilak, oso lagunak zituen.

Madridenteko pelotazaleek asko eskatzen zioten pelotariari eta Agustinaren iritziz oso pelotazale onak eta bere gogokoak ziren. Hasieran egunero jokatzen bazuen ere, bere pelotari maila igo zenean hilean 15 partidurekin nehikoa zuen..

Bartzelonan jokatzeo eskeintza ere izan zuen eta baita onartu ere, baina han denbora bat egin ondoren Madrida bueltatu zen, hura gogokoagoa bait zuen.

Frontoi berean entrenatzen ziren Agus eta Manolete. Esaten zuten, Manoleteren antza omen zuen Agustinaren ibilerak eta hori zela eta «Manolete» izen goitiz deitzen zuten askok. Manolete Agustina ezagutu zuen urte berean hil zen 1947-an, neskaren partidu bat ikusteko nahia bete gabe.

Agustina opor guzietan bere bxokora etortzen zen ama eta jaioterria oso gogoko bait zituen. Lehendabiziko urtean Madridentik arratsaldeko 7-retan irten eta Errenteriarra hurrengo eguneko arratsaldeko 3-retan iritsi zen. Auzo guztia zai zeukan geltokian.

Agustinaren familiak etxepean sagardotegia zuen aspaldidanik. Nork esango luke Beheko kalea eta Zumardiko tarte horretan 9.000 litroko kupelak zeudenik. Taberna hau «Xilberirena» bezala ezagutzen zen eta geroago «Kupeltoki» jarri zioten izena. Agustinak atsegin zuen bertan lan egitea.

Bainan oroitzen guztiak ez dira onak. Izan du arantzarik ere bere bizitzan. Aquiles-en tendoiean min hartu eta kirolari euskaldun askok bezala Etxebarren sendagilearengana joan nahi izan zuen baina alferrik, Federazioaren arauak ziotenez pelotari bakoitzak jokatzen zuen tokiko medikuearengana jo behar zuen.

Pelotari bezala beste alderdi desatsegin bat jokuan bolara txarrak izatea zen. Dopping-aren berri ez zuenez, urduri xamar zegoenean tila hartzen zuen jokatzen irten aurretik.

Beste arantza bat Mejico-ra joateko aukera izan eta ez joana da. Hemen gauzak ondo joan arren kanpoan askoz gehiago irabazten zen beti ere. Bi alditan sinatu zuen hara joateko kontratua eta oso ona gainera, baina hemendik alde egitea gogorra egiten zitzaion, baita bere amari ere.

Hala ere, La Habana-ra joan zen 1957-an. Baina bidaia hau desberdina zen, Agustinaren izebak izanak bait ziren lehendik. Bere ama ere joateko zen baina Cuba-ko iraultza hasia zenez bertan geratu zen.

Agustina eta bere pelotari lankideak hara joan zirenean beraientzat eta familiarakoentzat Hotel txiki bat eraiki zuten. Honek erakusten digu zer nolako ospea zuten. Bestalde, La Habana-ko hipodromoan sariak banatzeko gonbidatu zi-

tuztenean, hango jendetzak lehendik izandako emakume pelotari baten oroitzapena ekarri zuen: «besobakar» pelotariarena. Emakume pelotari hau besobakarrarekin jolastera behartzen zuten. Hona nondik datorkion izengoitia. Berehala erantzun zuten Agustinarekin lankideek «besobakar» Agus beraren izeba zela. Pelotari on eta ospetsu hura Josefina I zen.

Caribe-ko oso oroimen onak ditu Agustinak, bertako jendea oso alai eta atsegina zen beraiekin, bai frontoian eta bai handik kanpo...

Cuba-ko egoera zela eta enpresa itxi beharra gertatu zen baina nagusiak oso ondo portatu zirela berarekin dio Agustinak.

Hango gauzarik okerrenea beroa zen, hasieran buruko min izugarriak jasaten zituelarik. Zenbaitetan, bero jasan ezina zela eta, partidua amaitu ondoren jantzi eta guzti sartzen zen dutxan. Ederki gogoratzen ditu bai Agustinak, han igaro zituen hilabeteetako beroak.

38 urte bete zituenean ama hil zitzaion. Oso gogorra izan zen berarentzat lotura handia bait zegoen bien artean, nahiz eta Agustinak kanpoan hainbeste urte igaro. Azken denboraldian ama beste alaba batekin bizi zen Hernanin, baina gaisorik zegoenean nahiago zuen Erretereriako Barbeito sendagile gaztea, honekin lasaiago egoten bait zen beste edozein medikurekin baino.

Pelotan jokaturako urteei begiratuz bizimodu ona eta lasaia eraman duela esaten du Agus-ek. Partiduak gauetan jo-

katzen zituen eta oheratu baino lehen, piska bat lasaitu artean, kartetan edo beste zerbairetan jokatzeko ohitura zuen. Ondore, berandu arte lo. Pelotarien inguruan inor hilez gero elizkizunak ez ziren 12-ak baino lehenago izaten, pelotari gehienek egiten bait zuten lo berandu arte.

Agustina pelota munduan gustora egon arren, pelotari uzteko unea iritsi zitzaion. Oraindik kondizio onetan egonik uztea egokiagoa zela pentsatu zuen. Gainera 41 urte bazituen eta ez zuen 18 urtetako sasoirik. Zenbaitetan bere burua lekuz kanpo ikusten zuen berak zuen adinagatik.

Honela, zenbait lan proposamen egin zizkioten. Madriden izan zuen eskeintzarik baina bere herrira etortzea nahiago zuen eta halaxe egin ere. Donostiako kafetegi batean kajan lan egitea eskeini zioten.

1975-ean frontoi bateko takilan hasi zen lanean, honela bere bizitzako kuttunarekin, pelotarekin, nolabaiteko harremanetan jarraituz.

Agus-ek gaur egun 62 urte ditu. Bere denborapasa nagusia armairuak txukuntzea da. Bere ahizpa batek tarteka deitzen dio etxeko armairuetan txukuntasuna egiten laguntzeko.

Bidaiatzea atsegin ez duen emakume honi gaur egun La Habanara berriz joatea proposatuko nioke, azken 30 urte hauetan eman diren aldaketak ikusditzan. Baina hango jendearen izaera goxo eta maitagarriak berdin jarraitzen du eta Agus-en izebei atsegin ez zitzaion egoera, oraindik ezkongai egotea alegia, aldatu liteke.... nork daki?

